

ANTONIO ABADIA URRUSTOI

Bera, 1980-VII-31

J. Louis Davant

Nor zen Antoine (edo Antonio) D'ABBADIE D'ARRAST?

Mila-zortzi-ehun-eta-hamarrean sortu zen, Irlandako Dublin hiriburuan. Ama, irlandesa zuen, eta protestanta: andere *THOMPSON* bat. Berak idazki zenbait izenpetu du "Thompson D'Abbadie D'Arrast", "Antonio" izen ttipia erabiliz batzuetan.

Aita, berriz, Michel edo Arnauld-Michel, Ziberoko jaun xume bat, Abat (edo Apat) laiko, Urrustoi Abadiako jauna. Urrustoi da horren —eta ene—herria, Zibero Pettarreko azkena eta behar bada ttipiena. Erdaraz eman zigten "ARRAST" izena.

Frantziako iraultza haundian, Irlandara ihes egin zuen Arnauld-Michel Abadia Urrustoik. Han ezkondu zen andere Thompson delakoarekin, eta sei haur ukan zituzten: hirur alaba eta hirur seme. Gehiena edo zaharrena, Antonio zen.

Diotenez, Irlandan arma saltzetik aberastu zen Arnauld-Michel. Ordukotz Englesen aurka guduan ari baitziren Irlandesak, armak Bilbotik erakartzen omen zizkien euskaldun aterbetuak. Ordukotz agitzen baitziren hola-ko gertakariak.

Irlandatik itzuli zen familia, eta hogeian kokatu Frantziako Tolosan. Lan-oporrek Audaux-eko jauregian pasatzen zituen, Biarnoko probintzian, Urrustoirik hamar kilometretan.

Ikasle izigarri argia izan zen Antonio, bai mintzaira eta hizkuntzetan, bai zientzia eta jakintzetan. Sorbonan, *ARAGO* haundiaren ikasle da. Bere anaie Arnauldekin, Etiopiarra joaiteko prestatzen ari da gisa oroz: bai izpirituz, bai gorputzez.

Nil ibaiaren iturri-sorgiak aurkitu gogo dituzte. Ez dira Ez dira haietara sekulasantan helduko. Baina, bitarte hortan, beste zerbait aurkituren dute, ta ez guti. Jakintzaz eta bestela ere, zinez aberastuko dira berak eta euskaldun-goa.

Lehenik Antonio Brasilera bidaltzen du *ARAGO*-k. Han astronomiazko eta geografiatzko berrogei-ta-hamar ikertze egiten ditu, mañetismoaren gora-beherak eguzkiaren araberan aztertuz.

Hogei-ta-sei urtetan, Agosti *XAHO*-ren ezagutzak egiten ditu Antonio Abadiak. Adiskidantzatan sartzen dira, eta elgarrekin agertuko dituzte gero-gero aipaturen dizkitzuedan bi liburuak.

Goazen bada Etiopiara. Manatzeko dohaturik agertzen da han Arnould anaia. Etiopiako politikan sartzen da erdiz-erdi, gerlan ere ari da. Aitzindari egiten dute hango buruzagiek. Guduka haundi bat irabazten du, eta horren ohoretan, "Ras Mikael" izendatuko dute, hau da Mikael printzea (ezen aita bezala deitzen da).

Oso bestelakoa da Antonio. Borroka gogorra ez du maite. Jendea xuxenka bortxatu baino, inguruz-inguru, itzuli-mitzulika beretu nahiago du; bere xedetara heltzeko eta xederetara biltzeko, behar den denbora, behar den astia hartzen du.

* * *

Bestalde, ez da hanbat politikaria. Jakintzari baizik ez du eskerrik: geografiari, astronomiako eta tokiko hizkuntzei lotzen de errotik. Sail horietan oso jakintsu eta famatua jalgitzen da, liburu asko idatziz, artetik amarina-frantzes hiztegi bat ere.

Elgar osotzen eta laguntzen dute bi anaiek. Bere ikertzetan Arnould-*ez* ederki baliatzen da Antonio jakintsua.

Biak Etiopiako negus edo errege nagusi den Menelik haundiaren adiskide dira. Bakoitzak bere eran laguntzen dute, bai Etiopiaren batasunari buruz, errege xumeagoen aurka, bai Engles eta Italianoek aztaparretarik baztertzen.

Horri esker, ontasun ederrak Etiopiatik dakartzate: Antoniori behintzat ederki baliatuko zaizkio, jakintzaren eta euskaldungoaren alde.

* * *

Hameka urtez Etiopian ari izanik, Euskal-Herrira itzultzen dira bi anaiak, berrogei-ta-zortzian. Hemen kokatzen zaizkigu: Arnould, Ziburuko Elorriagan; Antonio, Hendaiako Aragorrian (1849-an erosi zuen); eta hirugarrena, Xarles, hau protestanta, Baigorriko Etxauz jauregian.

Aragorrian, etxalde haundi baten erdian, Abadiako jauregia eraikitzen du Antonio (1862-1870). Arkitekta, Viollet-le-Duc famatua du. Jauregiari emaiten dio irlandes itxura bat.

Artetik, Dauphine probintziako andere batekin ezkondu zen Antonio (1859). Baina haurrik gabe hilen dira, bera lau-ta-hogei-ta-zazpi urtetan (1897), emaztea lau urte berantago (1901). Jauregiko kaperan ehortzirik dau-de, aldare pean.

Emaztearen gatik, Arnaud-en familiarekin kexatu zen, eta hartarik oso berezi Antonio. Bederatzi haur baitzituen beste familiak, azkena eskatu zion Antonioren emazteak, eta ez ardietsi. Gero burutik nahasi zen guti edo asko, aski segurrik senarrari biziaren gastatzeko. Arnauld anaia hil zelarik, Ziburun ehortzi baitzuten, haren hiletara joan zen Antonio, emaztearen ixilik, eta bigarren galeriatik hipaka entzuten omen zen.

Abadiako leihoetarik, zeruko izarren miatzen ari zen Antonio, larga-bista haundi baten bidez. Hil zenean, larga-bista aurkitu zuten anaiaren etxeari buruz kokatua.

Dena dela, bere ikertze lanen jarraitzeko, Frantziako Institut delakoari utzi zituen jauregia eta inguruko lurak.

Hamalau hizkuntza ba omen zazkien: hamalau mintzaira horietan idatzirik, erran zahar batzuek utzi ditu, jauregiaren barneko pareta eta arterrietan marrazkituak: lehen-lehenik euskarazkoak, bistan dena.

Zientzia eta jakintzen Akademian, urgazle hautatu zuten. Laster Akademikide oso egin zuten. Eta azkenean, Akademiburu aukeratu zuten.



BERA-KO BILTZARRA (1980 VIII-1)

Akademian ez zuten nahi zenbaitzuek, ezi kristau suharra zen, oso gaizki ikusirik baitzen gauza hori, toki eta denbora haietan. Beraz gorritu behar izan zuen Arago haundiak. Jakintsu lagunei erran zien, bizi-bizia: jaunak, gure hautuaren egiteko, ez dugu Abadiaren barneko sendimentu eta sinestei kasu egin behar, baina bai kanpoko lanei bakarrik. Bestenaz ere, dohatsu holako sinestea duena. Nik bederen, beste hainbeste nahi nuke. Hori bai, ongi errana.

* * *

Geografiaz eta astronomiaz bezainbat axolatu zen euskaldungoaz. Euskararen maitasuna, aitaren ganik zukeen, hain segur, zeren oso euskalzalea zen Arnauld-Michel Abadia. Adibidez, Lécluse jaunaren euskal gramatika batean parte hartua zuen.

Euskaraz idatzi du Antoniok, guti bada ere, “Zubernoatikako gutun bat” (1864). Euskaratzaz eginak izan ziren azken lanez ikertze bat agerturik bazuen aitzinetik (1859). Hortan Lucien Bonaparte printzearen euskal lanak laudatzen ditu, eta Inchauspe apezaren euskal aditza (Le verbe basque) oroz gainetik goraiatzten.

Baina izkirioz baino gehiago, aholkuz eta diruz zuen euskaldungoa lagundu. Lehenik pilotari lotu zen. Bera pilotari pollita omen zen esku huska. Beraz esku jokoaren alde primak eman zituen, bai eta errebot edo botaluzearen alde. Atxiki haundia ez zuen hain begi onez ikusten. Har gatik, hura ere lagundu zuen. Urruñako pilota plaza bere sakelatik eragin zuen eta haren estrenatzeko, jai batzuek antolatatu zituen, errebot partida haundi batekin, berrogei-ta-hamekan.

Berrogei-ta-hamahiruan hasi zituen Euskal Jaietan olerkarien zein-gehiagokak, bai eta berrogei-ta-lau urtez atxiki bere diruaz. Hameka urtez Urruñan ospatuko dira, 13 urtez Saran. Gero herriz-herri. Eta horrela, hego aldean ere eginen dira: lehenik Elizondon, hiruetan-hogei-ta-hemeretzian; eta, hain zuzen, hiri hortan ospatu dugu jaz mendeurrena.

Ondoko urtean, Berako hiri honek zuen Euskal-Jaien ospatzeko txanda. Eta gertakari horren mendeurrenak aurten biltzen gaitu Berako udal-etxean.

Donibane-Lohitzuneko jaietan ere parte haundia hartu zuen Abadiak, lauetan-hogei-ta-hamabietik hil arteraino, horietan euskaldungoa ederki sartuz. Deitzen zituen olerkariak, probintzia guztietarik dantzariak, Ziberoko maskaradak eta pastoralak, HEGUIAPHAL bat errejent agertzen zela ordukoz.

Euskarazko liburu idazleak akulatzen eta saristatzen zituen, Ziberoan diogun bezala “thai” gabe, hau da eten gabe. Euskaraz ongi ari ziren haurrei ere primak emaiten zizkien Antonio Abadiak.

Bi hitz abadia-ren politikaz

Guzti horien artetik, Hendaiako auzapez izateko artea ediren zuen (1871-75). Egia erran, herri ttiki bat zen, duela ehun urte, Hendaiako hiria. Dena dela, ez zen hor alfer egon Abadia: zubi batzuek eragin zituen, karrikan argia ezarri, herriko-etxea, ondartza ere antolatu, eta abar...

Politikan, zein alderditakoa zenn? Eskuindarra zaitekean, baina errabiarik ez hertsikeriarik gabe. Hain bat erregetiarra zela iduri luke, baina hortan ere ez zen gogor agertu.

Napoleon hirugarrenaren adiskide haundia zen. Honek Abadiako jauregian azken harria ezarri behar zion. Baina gerlan bere tokia galdurik, erbeste-ra joan behar izan zuen Enperadoreak, Biarritzeko mainuak utzirik.

Beraz, harri bat eskas da Hendaiako Abadian, adiskidantzaren lekuko ederra bere hutsean.

Karlista familia batzuekin harreman tinkoak eta hestuak zituen Antoniok, bereziki *LARDIZABAL* eta *OLAZABAL*-tiarrek.

Zer nahi gisaz, ez zen politikazale beroa. Jakintza eta euskaldungoa zituen bere amorio eta inganioak. Bestalde, oso baketsua zen, ona eta ezta. Aharrak eta ixtorioak ez zituen maite; haietarik urruntzen zen ahal bezainbat.

Olerkarien zein-gehiagoketan, politikariz ez zuen nahi: hiruetan-hogei-ta-hamaseian, deus ere gabetarik egon zen, nahiz prima merexi zukeen, *ZALBUBY-ADEMA* senpertar apezaren kantu bat, "Biba Errepublika" delakoa; Errepublikaz trufatzen zelakoz baztertu zuten. Alta ez zen ondorik ere gorrietarik Abadia.

Bi liburutan parte hartu zuen, bere lumaz, beste ziberotar euskalzale batekin: hau dugu Agosti *XAHO* atarraztarra, ezkerreko gizona, liberala ere. Har gatik *ZUMALA-KARREGI* jeneralaren alde jarri zen Xaho, lehen karlistadan, euskal abertzalegoak bultzaturik. Bi Ziberotarrek elgarrekin lan egin zuten batasunezko punduetan, bestalde zituzten bide zehiarrak ukatu gabe. Huna beraz horien bi liburuak:

1.—Hogei-ta-hamabostean, Xaho-k agertu zuen bere "Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques" (hau da: Nafarroan egindako itzulia Euskaldunen jazarkunde denboran). Hitz-aurrea edo aitzin solasa egin zion Abadiak, eta "Bulletin de la Société de Géographie" delakoan, liburuaren bilduma bat ontzen dio, gorai patuz horren suzko idazkera eta gaitzeko abertzalegoa.

2.—Hogei-ta-hamaseian, euskal gramatika bat elgarrekin agertzen dute Xaho-k eta Abadia-k: "Etudes grammaticales sur la langue basque". Thompson d'Abbadie de *Navarre* izenpetzen du hor Antoniok, Nafarroaren izena ohoratuz berriz ere.

Abadia-ren euskaldungoaz beste bi ele

Jauna zen Abadia, baina xehea, eta ber denboran kanpainakoa. Krista-
taua zen, apeztiarra ere. Euskararen salbatzeko, apezzen gain kondatzen zuen.
Alta bada, apez euskalzaleekin eskuz-esku lan egin bazuen, Elizako buruzagiekin ez zen hain ongi atera. Seminario haundian, bere diruz, euskararen era-
kasteko aulki baten eraikitzea eskaini baitzuen, eskubide hori ukatu zioten
Diosesako buruzagiek. Gobernuko eskoletan bezala, Baionako seminario
haundian eta Larresoroko seminario ttipian debekaturik zen euskaraz erakas-
tea.

Baina badakigu prestua zela Abadia, kasailen etsai.

Euskaldunek deitzen zuten “Aita Abadia”, arrotzek berriz “Euskaldun-
nen Aita”, eta zerbait erran nahi duke horrek. Izen eder hori ez ote du merezi
Antoniok?

Bai, uste dut oraidinoko euskaldungoaren aita ukan dugula, ipar aldean
behintzat: “Euskaldun-Fededunen” aita, kulturazale hutsen aita, olerkari
zeingehiagoken aita. Hots, hego aldean “apolitica de derecha” deit zenezake-
ten euskaldungoa baten Aita. Baina hori gabe, non litzateke gaur ipar alde-
aren euskaldungoa?

Erran izan da, eta idatzi ere, Abadiak eratutako zein-gehiagokek ez
dutela euskal poesiaren maila goratu, ez dutela olerkia berezi bat-bateko ber-
tsularitzatik. Egia daiteke, ipar aldean behinik-behin. Baina herri kultura atxi-
ki, hazi eta zabaldu dute hain segur. Mespreziaztekoa ote da, adibidez, galdu
berri ditugun *XALBADOR* eta *ETXAHUN*- en Musa bukolikoa?

Badakit ez dela hortan mugatzen eta edeiten Euskal-Herri guztia, ez
garela hiri gabeak. Baina hor dago baserria ere. Eta lur oparo hortan, ondoko
batzuek artatzen hasi dute haritz agian kultoago bat, jakitunago bat. Poesiaz
ari garenaz geroz, nolaz ez aipa sail hortan *OXOBY* zena, Jon *MIRANDE*
zena, Aita *IRATZEDER*, Mañex *ERDOCAINCY ETCHART*, Eñaut
ETCHAMENDY, Daniel *LANDART* eta atzo ehortzi den Michel *LABE-
GUERIE*?

Ez, ez da idorra ez agorra Antonio Abadia Urrustoik utzi digun lurra.
Pottoka balitz ere zaldun horrek utzi digun zaldia, ez da segur mandoa.

Eta bururatzen dut bi hitzekin: Antonio Abadiak bere mintzaldien
bukaeran gogotik oihustatzen zituen bi hitzekin, Arturo *CAMPION* iruiñear
euskaltzain haundiak asmatutako bi hitzekin, haurride maiteak:

ZAZPIAK BAT!